

Ebazpena: R029/2023

Espedientea: 11/2016

Vitoria-Gasteizen, 2023ko martxoaren 22an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofia Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, hau erabaki du:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) Zerga Administrazioeko Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurrean planteatutako gatazkari buruz, zeinaren helburua baita CASAk JRG jaunari 2011n eta 2012an egindako lan pertsonalagatiko atxikpenak ordainarazteko eta ikuskatzeko eskumena zehaztea. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 11/2016 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- CASA sozietatearen egoitza soziala eta zerga-egoitza Bizkaian daude, eta Espainian du lantoki bakarra.

2.- JRG jauna Katalunian bizi da, eta nagusiki atzerrian egiten du lan, baina baita foru-lurraldean eta lurralde erkidean ere.

ZAEAREN arabera, saltzailea da, eta BFAREN arabera, berriz, Frantziako bezeroen arduraduna (horregatik bisitatzen ditu Frantziako bezeroek eskaerak egiten dituzten leku guztiak) eta negozioaren Errusiako arduraduna.

3.- ZAEAK zehaztu duenez, 2011n, atzerrian 105 egunez egin zuen lan, 103 egunez lurralde erkidean eta 21 egunez foru-lurraldean, eta 2012an, 119 egunez atzerrian, 90 egunez lurralde erkidean eta 27 egunez foru-lurraldean.

4.- ZAEAK atxikipenei buruzko desadostasun-akta hasi zuen, kontuan hartuta lurralde erkidean eta atzerrian lan egindako egunei dagokien proportzioa dagokiola, eta BFAn ondo sartuta daudela Euskal Autonomia Erkidegoan lan egindako egunei dagozkienak.

2015eko abenduaren 23an, ZAEAK lan pertsonalagatiko atxikipenen sorta eskatu zion BFARI.

5.- 2016ko otsailaren 23an, BFAK inhibizioa eskatu zion ZAEARI, eta hark bere eskumena berretsi zuen.

6.- 2016ko apirilaren 6an, BFAK gatazka planteatu zuen Arbitraje Batzordean, eta prozedura arruntaren bidez izapidetu da.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkek ebaztea, bai itundutako zergen lotura-puntuari aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zerga edota balio erantsiaren gaineko zerga administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar zaionean.

b) Banakako zerga-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkek erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

2.- Ordainarazteko eskumena

2.1.- Atzerrian egindako lanei buruz

Arbitraje Batzordeak 6/2018 Ebazpenean adierazi zuenez, indarrean dagoen Ekonomia Itunaren jatorrizko idazketak, *ratione temporis* aplikagarriak, integratu beharreko arau-hutsune bat zuen jurisdikziopeko itsasoan (itsasontzietan, jakina) eta/edo atzerrian zerbitzuak ematen dituzten langileen ordainarazpen-

eskumenari dagokionez, eta ezin zen onartu Estatuaren titulartasuna Euskal Autonomia Erkidegoaren alde berariaz hitzartuta ez egoteagatik.

Horrela, Arbitraje Batzordeak Auzitegi Gorenaren 1998ko azaroaren 14ko Epaiak (ECLI:ES:TS:1998:6730) ezarritako bideari jarraitu zion. Epai horretan Itunaren interpretazio integratzailea egitea erabaki zen, arau-hutsune bat zegoela iritzita, eta inplizituki onartu zuen nazioarteko uretan nabigatzen duen ontzi bateko tripulatzaileek lortutako etekinak, kontzeptualki, EAEn lortutzat jo zitezkeela *lantokia* bertan egonez gero.

Jurisprudentzia-ildo hori bera berretsi zuen Auzitegi Gorenaren 2019ko urriaren 4ko Epaiak (ECLI:ES:TS:2019:3144), Arbitraje Batzordearen 6/2018 Ebazpena berresten baitu, honako hau adieraziz: *Arbitraje Batzordeak errekurritutako ebazpenean emandako argudio guztietatik, bat bereziki sinesgarria da: zaila da Estatuaren abokatuaren tesiari eustea (horren arabera, jurisdikziopeko itsasoa eta nazioarteko urak ezin dira inoiz EAEko lurraldea izan) 2017ko legegileak berak gaia arautu duela kontuan izanik, berariaz aurreikusten baitu horietan emandako zerbitzuak «lantokiari» egozteko aukera, hau da, kasu horietan, egoitza-portua kokatuta dagoen lekua, lurralde erkidea izan zein foru-lurraldea izan.*

Horrela, bada, baketsutzat jo daiteke, aipatutako azken epaiak dioen bezala: *eztabaidaezina da 2017ko erreformaren aurreko erregulazioak hutsune bat zuela, interpreteak edo zuzenbidearen aplikatzaileak nahitaez bete beharrekoa.*

Hutsune hori ebazte aldera, Auzitegi Gorenak hau dio: *esan daiteke —foru-aldundiek dioten bezala— 2017ko Legeak identifikatu dugun hutsunea bete duela, eta gaiari buruzko benetako interpretazio bat eskaini, etorkizunera begira proiektatzen dena; egia da interpretazio hori etorkizunerantz proiektatzen dela,*

baina interpretazio-parametroa ere izan daiteke aurreko aldiei dagokienez, eta horrek zalantzaren bat eragin dezake ebazpenari buruz.

Horrela, berretsi egiten da Arbitraje Batzordeak 6/2018 Ebazpenean ezarritako irizpidea, langilea atxikita dagoen/lantokira jo baitzuen interpretazio-irizpide egoki gisa ordainarazteko eskumena arautzen duen araudia integratzeko.

Ondorioz, atzerrian egindako lanak, langilea atxikita dagoen lantokia Bizkaian dagoenez, foru-lurraldean egindakotzat hartu behar dira.

2.2.- Lantokiari buruz.

Lan- eta gizarte-arloko legedian ez dira gauza bera langilearen atxikipen-zentroa eta langileak zerbitzuak emateko eremu geografikoa.

Ohikoa da enpresek, beren jardueraren izaera kontuan hartuta, bulego edo sukurtsalik ez izatea beren jardunerako erabiltzen duten leku bakoitzean, nahiz eta eremu geografiko horretan zerbitzuak ematen dituzten langileak izan, baita eskusibotasun-araubidean ere, eta/edo beste espazio batzuetan ez lehiatzeko betebeharrarekin.

Kasu horietan desadostasuna egotea baimentzen da langileak zerbitzuak ematen dituen eremu geografikoaren eta atxikita dagoen lantokiaren kokapen geografikoaren artean, eta horrek garrantzia izango du eztabaida judizialak, Gizarte Segurantzako kotizazio-kontua eta abar ebazterakoan.

Hala, langile batek lurralde erkidean eman ditzake zerbitzuak, baina foru-lurraldeko lantoki bati atxikita egon daiteke, edo alderantziz.

Langileen Estatutuaren 40. artikulua ondoietarako, langilearen lantokia izango litzateke bere zerbitzuak eskusotasunez ematen dituen tokia, eta ez atxikipen-lantokia. Horrela, zerbitzuak emateko eremu geografikoa aldatu gabe atxikipen-zentroa aldatzeak ez lioke eskubiderik emango kontratua bidegabeko kaleratze baten berezko baldintzekin deuseztatzeko.

Hala ere, lan-prestazioengatik atxikipenak ordainarazteko eskumena zehazteko, legegileak *atxikipen-lantokia* aukeratu du; horrek eskatzen du enplegataileak langilea *atxikitze*ko borondatea izatea, eta nahitaez eramaten gaitu lan-kontratuan kontsignatu den eta Gizarte Segurantzako kotizazio-kontua zehaztuko duen zentrorara.

2.3.- Estatuko eta foru-administrazioetako lan-atxikipenen banaketari buruz

Ekonomia Itunak, zerga-baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoaren eta estatuaren artean banatzeko ikuspegitik soilik aztertuta, baliabideak administrazio bakarrari esleitzeko irizpide nagusiaren alde egiten du.

Horretarako, hainbat lotunetara jotzen du: ohiko egoitzara eta zerga-egoitzara, zerbitzuak emateko lekura, etab.

Salbuespen gisa, zenbait zergapekori beste irizpide batzuk aplikatzen zaizkie (eragiketa-bolumena eta eragiketa-bolumenaren proportzioa —eragiketarako egindako lekuak zehaztua—) eta irizpide horiek ekar dezakete ez zuzena izatea BEZari, Sozietateen gaineko Zergari eta establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari (errenta jakin batzuetarako) dagozkion tributu-baliabideak zerga-egoitzaren arabera administrazio bakar bati egozte.

Horregatik, halako kasuetan eta bestelako atxikipen-kasu batzuetan (adibidez, Ekonomia Ituneko 7.Bat.c eta 9.Bat.Lehena.a artikuluetan aipatzen direnetan),

errendimendua bi administrazioei egozten zaie, estatukoari eta foralari, lurralde bakoitzean egindako eragiketa-bolumenaren proportzioan.

Hala ere, aipatutako zergetan ere sinplifikazio-arau batera jotzen da etekinak administrazio bakar bati egozteko, eta lotune gisa berriz ere zerga-egoitza aukeratzen da aurreko urtean/ekitaldian Ekonomia Itunean araututako atalasea gainditzen ez duen eragiketa-bolumena izan duten zergapekoentzat.

Horren arabera, eta Ekonomia Itunaren interpretazio sistematiko eta integratzailea eginez —interpretazio hori aplika baitaiteke Kode Zibilaren 3. artikulua ezarritakoaren arabera, izan ere inplizituki hara bidaltzen baikaitu Ekonomia Ituneko 2.Bi artikulua—, Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikuluko lan pertsonalagatiko etekinen atxikpenak administrazio bati edo besteari egotzi behar zaizkio oso-osorik.

Horregatik, lan-prestazioak egiteko lekuaren irizpidea prestazio horiek lurralde bakar batean —foru-lurraldean edo estatukoan— egiten direnean baino ezin da aplikatu.

Aitzitik, lanak foru-lurraldean nahiz lurralde erkidean egiten direnean, beste bat da aplikatu beharreko arau nagusia.

Halako kasuetarako, Ekonomia Itunak *iuris tantum* presuntzio bat ezartzen du, gatazka ebazteko oinarrizko irizpide gisa balio duena, eta atxikipena langilea atxikita dagoen zentroa dagoen lekuko administrazioari egozten dio.

Hori dela-eta, baztertu egin behar da ZAEAREN asmoa (presuntzioa ezereztea, atxikipenak ordainarazteko eskumena banatzeko funtsarekin berarekin kontraesanean dagoen irizpide bat erabiltzea proposatuz horretarako), adierazi dugun moduan administrazio bakar bati egotzi behar baitzaizkio atxikipenak.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKITZEN DU

1.- Adieraztea ZAEAk ez duela ordainarazteko eskumenik CASAk 2011n eta 2012an JRG jaunari egindako lan pertsonalagatiko atxikipenei dagokienez, lurralde erkidean eta atzerrian lan egindako egun kopuruari dagokion proportzioan.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta CASari.

.